




Lehen sagardoa nola egiten zen erakutsiko dute Adunan.

tolosaldeko sagardoa

Upelera sagardo festa | aduna (gipuzkoa)

Astigarraga eta Hernaniri ezer kendu gabe, Tolosaldea ere betidanik sagardoari lotutako eskualdea izan dela aldarrikatu nahi du Adunako Muxkil elkarteak, astebururako antolatu duten Upelera festarekin. Tradizioaren pareko ahalegina egin dute, egun bakarrarekin konformatu ez eta gaurtik igandera arteko egitaraua osatu dute eta. Ez dira faltako ohiko sagardo dastatzea, herri afari eta bazkariak, bertsolariak, txapalarta, dantzak eta kontzertuak. Festarako ezinbesteko osagaiak. Baina alde didaktikoa ez dute ahaztu. Larunbat arratsaldean, esate baterako, *sagardoa egiten aintzinako erara* antzezlanak aurkeztuko dute, jendeak prozesu osoaren berri izan dezan, bertatik bertara. Ondoren, *Sagarrondotik sabelera* bideo emanaldia eskainiko dute. Horretaz gain, sagardogintzari buruzko argazki erakusketa asteburu osoan izango da ikusgai.

**Sagardoa
aintzinako
erara egiten
erakutsiko
dute**

gorka zabaleta

Zer: Upelera sagardo festa. **Non:** Adunan. **Noiz:** Gaur hasi eta igandea arte.

Gaur: Txalaparta eta bertsolariak (18:00); kalejira (18:15); dantza emanaldia (22:30); kontzertua frontoian: Ipar Haizea eta Seneka (23:30).

Bihar: Argazki erakusketa (12:00-14:00 / 16:00-20:00); antzezpena: *sagardoa egiten aintzinako erara* (17:00); *Sagarrondotik sabelera* bideoaren emanaldia (19:30); herri afaria (20:30); kontzertua (sarrerarekin): Ipar Haizea, Brigada Kriminal, Sagarroi eta Sioux (00:00). **Etzi:** Eguerdia arte, Tolosaldeko produktuen azoka; Tolosaldeko sagardoaren dastatzea eta txapelketa (12:00); bertso bazkaria Aburuza sagardotegian, Lizaso eta Peñagarikanorekin (14:00); herri kirolak (18:00).

**nora
joan**

